

Oinarriak

- ▶ Lehiakide bakoitzak marrazki bakarra aurkeztuko du, teknika askez egina eta DIN-A4 tamainako kartoi mehean marraztua, eta tolestu gabe entregatu beharko duzue kartazal itxi batean, "Haurren Marrazki Lehiaketa" bertan idatzita.
- ▶ Marrazkiaren atzealdean zein goibururekin aurkezten den eta **zein adin-talderi dagokion** azaldu beharko da.
- ▶ Beste kartazal itxi batean, kanpoaldean, goiburu bera jarriko da. Barruan egilearen izen-abizenak, jaiotza-data, marrazkiaren izenburua eta gurasoen edo aitona-amonen elkargokide-zenbakia idatziko dira.
- ▶ Marrazkiak aurkezteko epea **azaroaren 27an amaituko da, 14:00etan**.
- ▶ Adin-talde horretako seme-alabarik ez daukaten Gobernu-Batzordeko lau kidek osatuko dute epaimahaia.
- ▶ Epaimahaiaren epaia abenduaren 1ean ezagutaraziko da eta iragarki-taulan jarriko da ikusgai.